



ataria

Gabonetako
gehigarria

Gertukoa opari tuz





GERTUKOIA

Eguberrietan egiten dira urteko erosketetako asko. Kontsumoa biderkatu egiten da eta bai opariak egiteko eta baita Gabonetako ohiko otorduak egiteko dendaz denda ibiltzen gara. Eskaintzarik onenak nahi ditugu, baina baita produkturik hoberenak ere. Kalitateari eta prezioari erreparatu diogu, eta zaila izaten da batean eta bestean iragartzen diren produktu guztien promozioari izkin egitea. Bada ordea, kontsumo horri onura ateratzeko modua eta bakoitzaren gozamen hutsetik harago joateko aukera; bertakoa kontsumitzea. Badakigu produktuetako asko ez direla hemen ekoizten, baina hemen erosi daitezke, eta dendari txikiei, eskaintza zaintzen duten horiei, erosteko aukera zabala dago eskualdean. Produkturik onenak hemen erosi ditzakegu; arropak, oinetakoak, bitxiak, liburuak... denetarik dugu oparitzeko. Eta berdin otorduak osatzeko. Aukeratu Tolosaldea eta asmatuko duzu!

TESTUAK: Aitor Arroyo Askarai, Asier Imaz, Iñigo Terradillos Gaztañaga eta Leyre Carrasco.



ASTEARTEA, 2023KO ABENDUAK 5

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Kontsumitu bai, baina zentzuz eta arduraz

Askotan Gabonetan behar dena baino gehiago kontsumitzen da. Hori ekiditeko eta modu jasangarrian kontsumitu ahal izateko hainbat gomendio bildu ditugu. Lehen pausoa erosketak aldeztu aurretik antolatzea da, behar dena eta xahutu ahal den diru kopurua aurrez zehaztuta.

Gabonetako kontsumoari buruz egin den ikerketa baten arabera, Espainiako estatuan batez beste 601 euro gastatuko dira etxe bakoitzeko: 241 euro oparitan, 173 euro otordutan, 105 euro bidaietan eta 82 euro aisian. Kopuru horiek %5-%10 altuagoak izan litezke Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Kontsumitzaileen Alkartearen (EKA) arabera. Hori dela eta, komeni da hainbat gomendio jarraitzea eta gehien kontsumitzen den urteko garai honetan tentuz erreparatzea erosten den horri.

Adituek diote Gabonetan modu jasangarrian kontsumitu ahal izateko planifikazio gehiago behar dela. Horregatik errepikatzen dute aurrez pentsatu behar dela zer erosi eta opariaren kasuan praktikotasunari erreparatu behar zaiola. Horiek horrela, benetan behar dena erosteko aholkatzen dute, aprobetxatuko diren eta ordaindu ahal diren erosketen zerrenda prestatzea komeni da, horietarako aurrekontu bat zehaztuz eta hori ez gainditzen ahaleginduz. Horrekin batera produktu guztiak leku eta saltoki berean ez erosteko aholkatzen dute, eta ahal bada erosketak aurreratzea gomendatzen dute, baita hainbat egunetan egitea, eta ez guztia egun bakarrean.

Bada beste aholkurik ere: saltoki fisikoak aukeratzea eta *online* erosketak murriztea. Era berean, eskudirutan ordaintzearen alde egiten dute, txartelarekin ordainduz gero, errazagoa baita kopuruari ez erreparatzea. Hala ere, zenbait erosketak *online* egin nahi izanez gero, aurreordainketako edo diru kopuru mugatua duten txartelekin ordaintzea gomendatzen dute, bankuko kontu korronteari atxikitako txartelarekin ordez.

Gabonetan egiten diren oparietako asko haur eta gazteei bideratutakoak dira eta horien kasuan adituek diote jostailuen segurtasuna zaindu behar dela eta bideojokoaren edukiak zein gomendatutako adinak kontrolatu behar direla.

Gabonetan opari asko egiten badira ere, ez da hori gastu bakarra, otorduetan diru asko xahutzen baita. Horri begirako hainbat gomendio egiten dituzte. Esate baterako, janaria izoztea aholkatzen dute Gabonen aurreko azken txanpan gehien garestitzen dena elikagaiak baitira. Menuak aurretiaz prestatuz, elikagaiak aste batzuk lehenago erosiz eta etxean behar bezala izoztuz, diru asko aurreztu daitekeela esan dute.



GOMENDIOAK

Erosketak planifikatu.

Erosketak planifikatzea eta dena batera ez erostea; ez itzazu erosketak utzi azken ordurako. Behar duzunaren zerrenda bat egitea komeni da.

Aurrekontu bat egin.

Aurrekontu bat egitea gehiegizko eta azaleko gastuak kontrolatzeko. Erabilgarri dugun aurrekontura premiak egokitzea.

Txartelak tentuz erabili.

Txartelak buruarekin jokatuz erabiltzea.

Otorduak antolatu.

Janaria aldeztu aurretik erostea, eskaintzak aprobetxatuz eta Gabonak gertu daudenean garestitu ohi diren elikagaiak (mariskoa, haragia eta arraina) izozkailuan sartuz.

Jostailu egokiak erosi.

Jostailuak aukeratzean, haurren adina kontuan hartu behar da, eta sexismoa saihestu.

Beti aintzat hartu behar da segurtasuna, eta horretarako ziurtatu egin behar da produktuak etiketatuta daudela, segurtasuneko oharra eta erabilerarako jarraibideak dituztela, baita CE marka ere.

Bideojoko egokiak erosi.

Bideojokoetan arretaz begiratu behar da PEGI Kodearen (Pan European Game Information) piktogramen esanahia.

Logo horiek jokoa erabiltzeko gomendatzen den gutxieneko adinari eta edukiari buruzko informazioa biltzen dute.

Apaingarriak zaindu.

Gabonetako apaingarrien segurtasunari erreparatu behar zaio.

Argizko girlandak erabiltzen badira, ziurtatu egin behar da konexioak egoera onean daudela.

Itzulketak.

Saltokiko itzulketa-politikari buruzko informazioa izan behar dugu: itzulketak onartzen ote dituzten, zer epetan eta zer baldintzatan.

Erosketaren tiketa edo faktura eskatu eta gorde behar da, produktua itzultzeko, erreklamazio bat aurkezteko edo bermearen onurak jasotzeko behar baita. Komeni da publizitate eskuorriak gordetzea, publizitatea loteslea baita hainbat erreklamazio egiteko.

Gatazkaren bat sortuz gero, erreklamazio-orri bat eskatu behar da saltokian.

«HERRIAN KONTSUMITU, HERRIAN INBERTITU ETA HERRIAN ERAGIN BEHAR DA»

Miren Candelario Iparragirre Laboral Kutxaren Tolosako bulegoko asegurueta gestore espezialista da. Iker Agirre Uriarte bere lankidea da Tolosako bulegoan. Bere ardura, ordea, negozio eta profesionalen kudeaketara bideraturik dago. Biek ongi ezagutzen dute Tolosa eta Tolosaldea. Tokikotasunaren garrantziaz hitz egiten dute behin eta berriz, eta hurbiltasun horretatik, Gabon hauetarako aholku bat utzi dute.

Tokikotasuna Laboral Kutxaren ardatzetako bat da.

Iker Agirre Uriarte: Horrela da. Tolosan, adibidez, 1967tik gaude errotuta, herrian dugun bulegoarekin. Inguruko herritarrok osatzen dugu Laboral Kutxaren lantaldea. Ez da azken urteetako kontua hori, historikoki ere horrela izan baita. Ondorioz, bertako familia, negozio eta pertsonekin konprometituak gaude, baita eskualdearekin eta eskualdearen oraina eta etorkizunarekin ere.

Ohiturak aldatu egin dira hamarkada hauetan. Laboral Kutxaren bilakaera zein izan da?

Agirre: Gizarteak eskatzen dituen egoera berrietara egokitzen jakin dugu, eta horretan jarraitzen dugu. Izan ere, bilakaerak ez du etenik. Bai digitalizazioaren aldetik eta baita profesional mailan ere, beharrezko formakuntzak eguneratuta izaten lan egin dugu. Guzti hori gure esentzia mantenduz, hau da, bertako eta gertuko tratua horrekin jarraituz. Presente gaude, bertan gaude eta fisikoki gertu. Ondorioz, gure bezeroek ezagutzen gaituzte.

Zer egiten du eta zer egin dezake Laboral Kutxak tokikoa babesteko, bertako negozioak eta saltokiak laguntzeko?

Agirre: Urte askotako esperientzia kooperatiboa, Mondragon Taldearena, sustatzen jarraitzen dugu. Hau da, guk konpromiso bat daukagu sozialki gure inguruarekin. Guri interesatzen zaigu gure inguruarekin batera hazten joatea, eta bertan lanpostuak sortzea, aberastasuna bertan geratu dadin. Hori da gure funtsa eta gure konpromiso sozialik handiena.

Negozio eta saltokien ikuspuntutik, hainbat arlo indartsu daukagu. Alde batetik, Gaztenpresa proiektua daukagu. Gaztenpresa ez da soilik finantzaketari begirako proiektu bat, negozio berri batek sustatzeko behar duen laguntza orokor bat da. Martxan jartzeko behar duen laguntza, bere ekintzailatza plana edo bere erronkei aurre egiteko behar dituen baliabideak aztertzen ditu, eta behin martxan dagoenean, beharrezkoa den jarraipena egiten ere laguntzen du. Horren adibidea da, azken urtean,



2022ko datuez ari gara, Gaztenpresari esker 314 negozio martxan jarri direla, 637 lanpostu sortuz. Eta sorreratik honainoko datuak kontuan hartuko bagenitu, milaka enpresa eta lanpostuz hitz egiten ariko ginatke.

Horrez gain, finantzaketa lerroak baldintzarik egokienekoak izan daitezten hainbat erakunderekin elkarlanean ari gara. Adibidez, Europako Inbertsio Funtzarekin hitzarmenak sinatuz, finantzaketa erraztasunak lortu ahal izateko.

Gaur egun, teknologia eta digitalizazioa oso garrantzitsuak dira. Horregatik, gure bezeroek digitalki gurekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera daukate: *online* bidez, kontratazioari esker eta abar. Bezeroaren denbora oso garrantzitsua da guretzat, eta denboraren kudeaketa ahalik eta efizienteena izatea bilatzen dugu tresna hauen bidez. Eta noski, horrez gain, bulegoko zerbitzua daukagu. Hemen gaude, kalean gaude, negozioekin gaude, eta espezialistak daukagu, bai finantzarioki laguntzeko eta baita aseguruaren arloan ere. Aseguruaren gaitan espezialista den pertsona bat daukagu bulegoan bertan. Helburua bezeroen eskura egotea da, gauzak azaltzeko, errazteko eta laguntzeko.

Aseguruaren alorra bulego berean izatea, garrantzitsua al da?

Miren Candelario Iparragirre: Ikerrek esan duen bezala, bezero batentzat bere denbora oso garrantzitsua da. Horregatik, bulego berean finantza eta aseguru arloak egotea oso praktikoa, eroso eta efizientea

da bezeroarentzat. Tolosako bulegoak, gainera, beste bulego batzuekin alderatuta ordutegi zabalagoa dauka. Astelehenetik ostegunera, jarraian, 18:00ak arte. Bezeroak hona etorri ezin duenean, *online* bidezko zerbitzua dauka eskura. Baina ez hori bakarrik, berak nahi izanez gero, bere lantegi edo negoziara gerturatzeko aukera daukagu. Hau ere egin izan dugu, aurrez aurreko zerbitzu hori indartzeko.

Zer eskaintzen dio asegurueta espezialista batek saltokiari, negozioari?

Candelario: Laboral Kutxako espezialistok Lagun Aro Asegurueta geroz. Asegurueta bakarrik espezializatzen garen gestoreak gara. Esperientzia handikoak, izan ere, batez beste, 15-20 urte daramatzagu aseguruaren arloan. Nire ustez bezeroek esperientzia hori segituan sumatzen dute, eta horri esker, konfiantzan oinarritutako harreman bat sortzen da. Hori oso garrantzitsua da aseguruaren munduan. Bezeroak argi ikusi behar du aurrean duenak mundu hau gertutik ezagutzen duela. Urteetako esperientzia horri esker, eurek segituan ikusten dute hori, produktuen eskaintza zabala ongi dominatzen dugula, eta euren beharretara egokien egokitzen den aukera eskaintzen diegula. Horrek sortzen du lehen aipatutako konfiantza.

Zein produktu eskaintzen ditu Laboral Kutxak aseguruaren atalean?

Candelario: Bereizketa bat egingo nuke hor. Alde batetik, negozio edo saltokiei lotutako aseguru sorta aipatuko nuke, eta bestetik, norbanakoei edo autonomoei zu-



LABORAL KUTXA

Helbidea.

San Frantzisko
Pasealekua ibilbidea, 11 (Tolosa)

Telefono zenbakia.

943 65 02 61

Webgunea:

laboralkutxa.com

X.

@LABORALkutxa

Facebook.

@laboralkutxa

zendutakoak. Saltoki, negozio edo enpresa txiki nahiz ertainentzat komertzio aseguruak ditugu. Euren lantegiak edo lokalak ere aseguratu ditugu, sute edo lapurretak izanez gero, adibidez. Horrelakoak ere gertatzen direlako. Zerbitu zabalagoa behar izatekotan, negozio ekintzari lotuta, erantzukizun zibileko aseguruak, ostalaritzara egokituak, aseguru kolektiboak edo bizi-istripuenak aipatuko nituzke.

Norbanakoen edo autonomoen kasuan, laneko bajei lotutako aseguruak ditugu. Euren baldintzak zeintzuk diren ongi ezagutzen dugu, eta badakigu baja hauek nolako eragina izaten duten euren egunerokotasunean edo plangintzetan. Edozein unetan medikura lasai joan izatea, lasaitasun hori edukitzea, oso garrantzitsua da. Osasunari lotutako aseguruak hori bermatzen dute, eta aldi berean, baja garaian euren diru sareretan galerarik ez izatea.

Helburua, bezero bakoitzaren ezaugarrietara hobekien egokitzen den aseguru eskaintzea da.

Gabonak gainean ditugu. Zein mezu zabalduko zenieke eskualdeko herritarrei, garai hauetako erosketen harira?

Agirre: Kontsumo arduratsu batetik abiatuz, izan gaitezten kontziente, herrian kontsumitzeak herrian eragiten duela, eta aberastasuna bertan geratzen dela. Orduan, gu ere bertakoak izanik, bertan gaude, eta hemen gaude beraien beharretarako.

Candelario: Nik oso argi daukat: herrian kontsumitu, herrian inbertitu eta herrian eragin.

Zaindu ditzagun kale biziak nahi baditugu

Herrietako saltokiek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete herritarrei, baina hori baino gehiago ematen diote herriari. Kaleei bizia ematen laguntzen dute eta bizia duten kaleak seguruagoak dira, bizipoza ematen dute eta bertakoa zein gertukoa zaintzeko aukera eskaintzen dute. Zaindu ditzagun gure herrietako dendak.



Tamalez asko dira azken urteetan itxi diren saltoki txikiak. Garai batean bizia zuten kaleetako asko orain leku ospel eta ilunak dira. Azken urteetako kontsumo ohitura berriek eta beti gose den higiezin merkatuak, besteak beste, gure herrietako saltoki txikietako asko itxi dituzte. Garai batean biziz gainezka zeuden kaleak, gaur egun ilun eta hotz ageri dira. Baina bada horri buelta emateko aukera eta herritarrak gara giltzarria; kontsumitu dezagun herrietako denda txikietan, gertuko tratua jasoko dugu, gure zalantzak argitzen lagunduko digute, aholkuak emango dizkigute, dendan ez duten hori aurkitzen lagunduko digute... Saretu gaitezen eta saiatu guztion artean beste kontsumo eredu bat sustatzen. Dendari txikiek merezi dute eta baita guk ere.

HERRIA INDARTZEKO HELBURUZ

Herria dinamizatzea eta herriko dendak sustatzea du helburu Tolosa&Co elkarteak, baita herriko eta inguruko herritarrek bertako komertzioetan erostera animatzea ere. Gaur egun sektore ezberdinetako 190 merkatarik inguruk osatzen dute elkartea, eta horien lana zaintzeaz arduratzen dira, eskaintza edo zozketa bereziak diseinatuz, besteak beste. Pedro de Tolosako etorbidean dago egoitza, Oriaburu eraikinean, eta bertan aholkularitza zerbitzua ematen diete bazkide diren merkatariei; esaterako eguneroko arazoekin edota lizentzia zein baimenak kudeatzen laguntzen diete, udalarekin zuzeneko komunikazioa errazten dute edota elkartekideentzako ikastaro eta formazioak antolatzen dituzte.

Merkatarien arteko komunikazioa zaintzen dute eta horretarako, besteak beste, WhatsApp taldeak dituzte kaleka antolatuta «bertan zabaltzen dugu informazioa, diru laguntzen edo lege aldaketan inguruko informazioa, besteak beste».

Saltoki txikien beharretara egokitzen dira eta horretarako lan poltsa bat daukate, esaterako. Elkarteko kide diren establezi-



menduek datu-base horretara sarbidea dute, euren saltokiko lantaldea handitu nahi badute edo langileren bat ordezkatu behar badute. Eta oraindik garrantzitsua goa dena, «elkar babesten dugun talde handi bat osatzen dugu. Izan ere, Tolosa&Co-ren elkartekide izateak abantaila asko ematen ditu».

Merkatarien lana errazteko asmoarekin urtero kanpaina ezberdinak gauzatu eta bideratzen dituzte. Horren adibide, urriaren 11n aurkeztu zuten *Ez izan pakete bat* publizitate kanpaina: «Herritarrak Tolosako saltokietan erostera animatzeko asmoarekin egin genuen eta egia esan nahi-

TOLOSA&CO

Telefono zenbakiak. 943 65 35 78
622 77 62 50

Webgunea. tolosandco.org

Helbide elektronikoa. info@tolosandco.org

Instagram. [@tolosandco](https://www.instagram.com/tolosandco)

Facebook. [@Tolosa&Co](https://www.facebook.com/Tolosa&Co)

ko ondo joan zen, gainera, bideoaren ikus-taldi kopurua igotzen jarraitzen du».

Tolosako saltoki txikiak merkatu berrietara zabaltzeko asmoarekin, euren produktuak *online* erosteko aukera ere eskaintzen dute Gogoko zerbitzuaren bitartez. «Gogoko-n Maialen izango duzu zure erosketarekin laguntzeko prest; 688 750 783 telefono zenbakira *whatsapp* mezu baten bidez zure erosketa zerrenda bidali dezakezu eta bera arduratuko da gainontzeko guztiaz. Gainera Gogokoren bidez, saltoki desberdinetan egin ditzakezu erosketak, izan harategia, fruta denda edota arropa denda, eta Tolosaldeko edozein herritan banatuko ditugu erosketak egunean bertan, 18:00etatik 20:00etara bitartean».

HERRIARI BIZIA EMATEKO ASMOZ

Oria Merkatarik elkartea 2007. urtean sortu zuten, herriko merkataritza jardura ekonomikoa sustatu eta bultzatzeko, eta bazkideen interesak defendatzeko helburuarekin. «Merkatarik gutxi batzuk bildu eta herriko sektorearen lantalde bat behar zuela aurreikusitua genuen», azaldu dute elkartetik.

Gaur egun 34 bazkidek osatzen dute elkartea, eta bi herri elkartzen ditu: Villabona eta Zizurkil. Urtean zehar hainbat kanpaina egiten dituzte, normalean zozketak izaten direnak, baina ez bakarrik, erosketen truke produktuak oparitu izan baitituzte. Adibidez, aurten mahaiko egutegiak oparitzen ari dira Gabonetako erosketak egiten dituzten artean. Era berean, urtero irailean Stock Azoka egin ohi dute edota udaberrian Parisarako bidaia bat zozkatzen dute.

Oria elkarteak badu beste berezitasun bat: bezero txartela. Txartel fisikoa da eta momentu honetan sei dendatan erabili daiteke. Erosketak egiten dituztenek, erosketaren %1 gehitzen dute txartelera. «Denda horretan bakarrik gastatu dezakezu, hau da, metatutako kopurua erosketa egin duzueneko dendan erabili dezakezu».

Erosketen ibilbidea ere egiten dute. Sei



denda ezberdinetan bost euroko gutxieneko erosketa eginez gero, zigilu bat jartzen dute banatzen duten txartel batean, eta ondoren, parte hartzaile guztien artean txekak zozkatzen dituzte. Pasa den urtean egin zen bezala, aurten ere txartelak banatu dituzte Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Lehen Hezkuntzako ikasgela guztietan, «funtzionamendu berdinarekin».

Merkatarien elkarteko klasikoaren artean

kontsumo bonuen kanpaina aipatu dute eta aurten abenduaren 9a arte luzatu dute.

Gabonetako eskaintza

Abenduan Gabonetako beste hainbat kanpaina izango dituzte martxan. Besteak beste, iaz egin zuten *Asmatu prezioa* izango dute aurtengoan ere. Honela, herriko merkatarik hainbat produktuekin beteko dute Villabonako Rural Kutzako erakus-

ORIA MERKATARI ELKARTEA

Telefono zenbakiak. 688 885 496

Webgunea. oriamerkatarik.com

Helbide elektronikoa.

info@tolosaldeamerkataritza.eus

Instagram. [@oriamerkatarielkartea](https://www.instagram.com/oriamerkatarielkartea)

Facebook. [@oriamerkatarielkartea](https://www.facebook.com/oriamerkatarielkartea)

leioa. Abenduan erosketak egiten dituztenek hainbat produkturen prezioak asmatzeko txartelak jasoko dituzte; preziora gehien gerturatzen den parte hartzaileak erakusleioan dauden produktu guztiak irabaziko ditu.

Bada besterik, oraingoan gazteei begira eta herriko dendak ezagutarazteko helburuarekin. Galtzagorri pertsonaia ezkutatu dute herriko hainbat erakusleiotan eta Galtzagorri topatzen dutenek dendariari esan beharko diote. Kanpainen parte hartzen duten gaztetxoaren artean sari desberdinenak zozkatuko dituzte.

Horrez gain, gaztetxoenei begirako eskaintza osatu dute abenduaren 26, 27 eta 28rako eta urtarrilaren 2, 3 eta 4rako. Amasa-Villabona eta Zizurkilgo eraikin desberdinetan izango dira ekitntza horiek.



'JAUREGIA' KOTOIZKO JERTSEA

Tolosako Alde Zaharreko arima darman jertsea da *Jauregia*. Kotoi organiko-ko ehundutakoa da eta GOTS ziurtagiria du. Kale Nagusiko 17. zenbakiko Andia dorretxea izan zenaren oroimenez sortutako Andia arropa-lineako jertsea da. XV. mendean horma horien artean jaio eta bizi izan zen Domenjon Gonzalez de Andia *Gipuzkoako erregia*. 1503an su hartu zuen dorretxeak, baina haren semeak berreraiki zuen. Udaltxea izan zen XVII. mendean eta, gaur egun, armariaren arrastoak eta teilatu hegaleko bost gargola baino ez dira geratzen. Jertsearen ezaugarriak dira hain justu, eraikinaren fatxada hori eta grisa. Kalitate handiko jantzia da eta ez da kasualitatea, hiru hamarkada bete berri dituen Kimetzena baita.

KIMETZ ARROPA DENDA

Helbidea.

Korreio kalea, 35
(Tolosa)

Webgunea.

andia.eus

Telefono zenbakia.

943 094 849.

Instagram.

@andia.arropa

ANDIA



DENDARAKO OPARI BONUA

Oparitzeko aukera paregabea da Musika Faktoriako opari bonua. Berezitasun bat ere badu, hain zuzen, oparia egiten duenak erabakitzen duela zenbatekoa izango den opari bonuaren balioa. Gabonetarako egokia den arren, urte osoan daude eskuragarri, eta egin ondoren, urtebeteko epean iraungitzen dira bonuak.

Musika instrumentuen eta osagarrien denda da Musika Faktoria. Iruran dute saltoki fisikoa, baina web orrialdetik ere ematen dute erosketak egiteko aukera. Denetarikoa musika tresnak eta osagarriak saltzeaz gain, mota guztietako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, besteak beste, entsegu gelen alokairua, musika grabaziorako estudioa eta soinuztatze zein argiztapen zerbitzuak.

MUSIKA FAKTORIA

Helbidea.

Ibaiondo industrialdea, 6
(Irura)

Webgunea.

musikafaktoria.eus

Telefono zenbakia.

603 828 610

Instagram.

@musika_faktoria

MUSIKA FAKTORIA



'AIRE' BESAUJKI EROSOA

Banakako besaulki ederra da *Aire*. Lerro garbien diseinuak eta hamabi zentimetroko altuerako hankek irudi dotorea eta estilizatu ematen diote. Era berean, oso eroso da, bai kalitate handiko materialengatik, bai eta belarri handiengatik ere, funtzionalak eta apaingarriak baitira aldi berean.

Itxura fin eta dotorea du, gerezi koloreko forradura leunari eta metalezko hanka beltz mateei esker. Ederra bezain erabilgarria, eskuineko aldean hainbat gauza gordetzeko poltsiko sotila ere badu-eta. Baina ez da dena itxura: pinu egurra eta MDF taula ditu egiturari. Sendoa eta eroso; gomazkoak dira bizkarraldea zein eserlekua, eta metalezko malgukiak ditu oinarrian.

MIKEL ALTZARIAK

Helbidea.

Iruña Hiribidea, 22
(Tolosa)

Webgunea.

mikelaltzariak.com

Telefono zenbakia.

943 675 536

Instagram.

@mikelaltzariak



BITAN BIHUR DAITEZKEEN BITXIAK

Zergatik konformatu bakarrarekin bi eduki ditzakegun? Imajina ezazue Eguberri hauetan opari berezi eta paregabea jasoko duzuela: desmuntatzen den eta guztiz ezberdina den bitxi bat. Pieza hauetako bakoitza irudimen paregabe eta sorkuntza prozesu erabat artisauren emaitza da. Proposatzen dizuegun Vicenç Janéren lerroak konbinatzen ditu denboraz gairako 18 kilateko urre horiz edo zuriz eta diamantez osatutako bitxi bat, eta zilar herdoilduzko pieza moderno bat. Hitzordu berezietarako pieza fin eta dotore batez goza dezakegu eta, aldi berean, guztiz eraldatzen duen beste bitxi abangoardistago batez. Dendan daude eskuragarri ale ezberdinak.

CID ERLOJU ETA BITXI DENDA

Helbidea.

Foruen Etorbidea, 5
(Tolosa)

Telefono zenbakia.

608 832 148

Instagram.

@cidrelojeriajoyeria

RELOJERIA - JOYERIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA



OOF WEAR NEGUKO BEROKIAK

A benduan sartuta, neguko tenperatura baxuak direla eta, hozten hasten gara. Horri aurre egiteko Oof Wear marka italiarraren eskaintzarekin dator NZB denda. Denboraldi honetarako, beroki alderantzizkagarriak ditu eskura kolore eta tamaina desberdinetan, euriari eta haizeari aurre egiteko. Erosotasuna mantentzeaz gain, goxotasuna ere izango dute hori erosten dutenek. Horrez gain, bestelako jantziak topatu daitezke, baita osagarriak ere: zapiak, gerrikoak, bitxiak, motxilak, poltsak, galtzerdiak, zapatilak eta diru zorroak, besteak beste. Guztia emakumeentzat, izan gazte zein heldu. Horretarako, hainbat marka ezagunekin egiten du lan NZB dendak, bertako nahiz kanpokoak.

NZB JANTZIAK

Helbidea.
Nafarroa Hiribidea, 10
(Tolosa)
Telefono zenbakia.
943 573 960
Helbide elektronikoa.
gemaberdeal@gmail.com
Instagram.
@nzb_tolosa

NZB
MODA ETA OSAGARRIAK



GURDIKO PRODUKTU SASKIA

Gabonetako eskaintza berezi batekin dator Gurdi EHNELUR denda. Orain, norberak bere saskia sortzeko aukera izango du. Horretarako, erosle bakoitzak dendako produktu gustukoenak aukeratu behar harko ditu soilik, eta ondoren dendako langileek osatuko dute saskia. Sorta biltzeko formatua aukeratutako produktuen arabera izango da. Baserritarrengandik eta baserritarrentzat sortutako denda da Gurdi, eta bere egiteko nagusia lehenengo sektorea bermatu eta mantentzea da. Horregatik, baserrirako produktuetan —abeltzaintza, lorezaintza, baratzea edota ekoizpen ekologikoa— espezializatuak dauden arren, edozein etxetan beharrezkoak diren produktuak ere aurkitu daitezke bertan.

GURDI EHNELUR DENDA

Helbidea.
Industrialdea 5A-5B pabiloiak (Anoeta)
Telefono zenbakia. 943 655 880
Webgunea. gurdi.com
Helbide elektronikoa. gurdi@gurdi.com
Instagram.
@gurdiehnelur
Facebook.
@gurdi

Gurdi
EHNELUR



IU ESPERIENTZIA BONUA

Tradizioz, pasioz, sormenez eta kalitatez beteriko esperientzia bizitzeko aukera eskaintzen du Inazio Urruzola Txakolindegia; batetik, esperientzia gastronomikoaz gozatzeko aukera izango da jatetxean, Jatuna edo Xibarita menuen artean aukeraturata, eta bestetik, txakolinaren elaborazio prozesua eta dastaketa egin ahal izango da upategian, hamaiketako eta guzti. Interesatuak esperientzia egokitzeko aukera izango dute, menu gastronomikoa bakarrik hartuz edo dastaketa ere aukeraturaz. Esperientzia edozein larunbatean bazkal orduan egin ahal izango da. Horrez gain, 20 pertsonatik gora osatutako taldeentzat esperientzia ere eskaintzen du, asteko edozein egunetan egiteko aukerarekin.

INAZIO URRUZOLA TXAKOLINDEGIA

Helbidea. Arana Bailara, 18 (Alkiza)
Telefono zenbakia. 688 720 709
Webgunea.
inaziourruzola.eus
Helbide elektronikoa.
inaziourruzola@gmail.com
Instagram.
@inazio_urruzola_txakolina
Facebook.
@inaziourruzolatxakolina

Inazio
URRUZOLA
TXAKOLINA



GABONETAN OPARITU BERTAKOA

Eguberri hauetan kuttunak direnei opari berezia egiteko aukera luzatu nahi du ATARIA-k; urtebeteko harpidetza oparitu nahi duzunari gutun azal eta opari-txartel berezi batean eta lagundu Atarikide sarea zabaltzen. Bertakoa zaintzea ezinbestekoa dela maiz aipatu izan dugu. Baita elkar zaintzea oso garrantzitsua dela ere. Eta ATARIA-k bide horretan bere ekarpena egin nahi izan du. Gabonetarako prestatutako opari berezi honekin bertako euskarazko kazetaritza, gertukoa eta profesionala oparitzeko aukera eskaintzen du ATARIA-k. Egin erreserba abenduaren 22a baino lehen, 943 65 56 95 telefonora deituz edo atarikide@ataria.eus helbide elektronikora idatziz.

ATARIA OPARI

Eskaintza.
Urtebeteko harpidetza
Noiz arte.
Eskatu abenduak 22a baino lehen
Telefono zenbakia.
943 65 56 95
Webgunea. ataria.eus
Instagram. @tolosaldekoataria
Facebook. @tolosaldekoataria
X. @tolosaldeataria
Helbide elektronikoa.
atarikide@ataria.eus

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

RAFA GORROTXATEGI



TOLOSAN SALGAI:
OBRADOREA:
USABAL POLIGONOA, 14

943 89 03 06
www.rafagorrotxategi.eus

RAFA GORROTXATEGI
1680

EZ GELDITU ATARIAN, SARTU GURE ETXERA.

JOXE MARI
BARRIOLA
TRADIZIOA ESKURA

Eguberri eta Urteberri on!

Whatsapp bidezko eskariak: 610 289 827
Euskal-Herria 13 · IBARRA · 943 67 08 69
www.barriola.eus



BERRITASUNEAN, ILUSIOZ BETERIK

Saberi lurrin-dendak 1989an zabaldu zituen atea lehen aldiz. Gurasoen dendako erreleboa hartu zuen Garbiñe Mozok, eta hiru hamarkada hauetan gorabeherak izan dituzten arren, ilusioz beterik jarraitzen dute lanean Tolosako Kale Nagusiko 17. zenbakian. Gaur egun beste bi langile aritzen dira Mozorekin batera, Susana Ortiz eta Olaia Otero, eta guztiek ere argi dute zeintzuk diren zerbitzu ona eskaintzeko lehen baldintzak: bezeroekin duten harremana eta profesionaltasuna.

Jendeari segurtasuna eta konfiantza ematea gustatzen zaie Saberrin. Horregatik, bezero bakoitzaren beharrak edo nahiak aztertu eta horiek asetzen saiatzen dira, kalitate eta prezio hobereana eskainiz. Horretarako, kosmetikako, lurringintzako eta drogeriako eskaintza zabala dute, baita opariak egiteko nahi beste artikulu ere. Produktu tradizionalak alde batera utzi gabe, modan dauden produktu berrienek ere lekua dute dendako apaletan. Baina horien falta sumatzen dutenek enkarguz eskatu ditzakete eta hiru egunen buruan izango ditzuzte dendan.

Euren lanaren erakusgarri udaberri ho-



netan berri duen kabina da. Gehienek makillatzeko txokoa bezala ezagutzen dute, izan ere, bertan auto-makillaje ikastaroak eskaintzen dituzte, baina bertan beste hainbat zerbitzu ere badaude, emakume zein gizonentzat; manikura eta pedikura, betileetako *lifting*-a eta bekain tratamenduak egiteaz gaindi, depilazio zerbitzua ere badute SHR (*Súper Hair Removal*) sisteman bitartez «emaitzarik azkarrenak eta egokienak bermatzeko».

Kabina ez da egin duten berrikuntza ba-

karra, zerbitzu berriak ere gehitu baitizkio te zerrendari. Horietako bat Shothys Paris marka frantsesaren produktuekin egiten dituzten aurpegirako garbiketak dira. Bestea, berriz, azido tratamenduak dira, Utsukusy markarekin egiten dituzte eta «aurpegiaren irmotasuna zehaztu, orbanak kendu edo adinaren aurkako tratamendu zehatzagoak egiteko» dira baliagarriak. Horretarako, *Enpitsu* izeneko terapia prozedura ez-kirurgikoa erabiltzen dute, «tratamendu oso egokia da larruazalaren funtzioak



SABERRI LURRIN-DENDA

Helbidea. Kale Nagusia, 17 (Tolosa)

Telefono zenbakiak.

943 671128

672 062 065 (Whatsapp business)

Helbide elektronikoa. saberry@saberry.com

Instagram. [@perfumeria_saberry](https://www.instagram.com/perfumeria_saberry)

gaztetzeko eta berrezartzeko. Prozedurak ez du kalterik eragiten eta gainera hartzailearen sentsibilitatearen arabera doitu daiteke».

Opari bonuak Gabonetako

Horrez gain, ohi bezala, aurrean ere erosleek Gabonetako bonuak izango dituzte aukeran; betile *lifting*-a, *begirada osoa* tratamendua, azalaren garbiketa eta tratamendua edota mikroneedling teknika duen Utsukusy Enpitsu azalerako lapitza.

OREXAN EZ DUZU DEN-DENA AURKITUKO BAINA BERTAKOAZ GOZATUKO DUZU

► bertako produktuak
online eskuratzeko denda



► Tel.: 943 682 290 ► biziorexa.eus/denda





GABONETAKO MENU BEREZIA

Eguberrietarako eskaintza bereziak egi- ten dituzte enkarguz. Data bereziak izaten dira eta nahiko lan izaten dugunez bestela ere, zergatik ez baliatu Aukera Elikagunearen aukera paregabea? Urte guz- tian eskaintza zabala izateaz gain, Gabone- tarako plater bereziak ere prestatuko dituz- te eramateko: haragi erreak, arkumeak zein txerrikumeak, arrain zopa, etxeko frijituak, budina, arrainak saltsa eta abar. Aukera Elikagunean etxeko, eltzeko eta mimoz egi- niko jakiez gain, zuzeneko salmenta zein eramateko zerbitzua eskaintzen dituzte.

Aukeran, elikatzea ez da jatea soilik. Par- tekatzeko, ezagutzeko eta zer ahoratzen dugun jakiteko gunea da Aukera. Gabone- tan eskaintza berezia izanda ere, bestelako produktuak ere mantenduko dituzte.

AUKERA ELIKAGUNEA

Helbidea.

lurre auzoa, 3
(Tolosa)

Telefono zenbakiak.

688 775 301
943 503660

Instagram.

@aukera_elikagunea



ECEIZAKO ERREGE OPILA

Urtean zehar postre ugari izaten dituzte aukeran Eceiza gozotegian, baina Ga- bonetan badute postre berezi bat: Errege Opila. Esne-gainez, kremaz edo betegarri- rik gabea izaten dute aukeran, eta osoa edo erditik zatituta eraman daiteke etxera. Aza- har-urarik gabekoa da, gainera. Opilaren ekoizpenean aurreko belaunaldiek erabil- tzen zuten errezeta berbera jarraitzen dute Eceizan, horixe da euren sekretua: etxean eta modu tradizionalan eginga dagoela. Go- zoa den eta familia zein ospakizuna burura ekartzen duen benetakotasun zaporea duen mokadutxo da. Urte osoan saltzen dute eta aurtengo Gabonetan ere ez da fal- tako. Horretarako, aurrez eskatu behar da, telefono bidez edo bertara gerturatuta.

ECEIZA GOZOTEGIA

Helbidea.

Rondilla kalea, 34 (Tolosa)

Telefono zenbakia. 943 651916

Webgunea. eceiza.eus

Helbide elektronikoa.

pasteceiza@euskalnet.net

Instagram.

@eceizapasteleria

Facebook. @eceizapasteleria



ETXEKO FOIE GRAS 'MIKUITA KUTIXI'

Plazer handiak, bekatu txikiak. Xubero, autore txarkuteria. Mikuita frantsese- ko hitza da eta erdi-egosi esan nahi du. Foie gras hitzak, berriz, gibel betea. Gatza eta piperrarekin mazeratzen uzten da gibel osoa. Tratamendu termikoa jasotzen du 70-80 gradu artean. Berezko propietate eta no- lakotasun organoleptikoak mantentzea lor- tzen dute teknika horrekin. Hala, gantz gu- txiango galtzen dute eta modu honetan burutzen den pasteurizazioari esker bizia luzatzen zaio.

Kolore argi dirdiratsua du Xubero mikui- tak, arto kolorea nolabait esateko. Mikuita egiteko erabiltzen dituzten espezie, gatz, azukre eta ardoek, berezkoa duen usaina potentziatzen laguntzen diote. Euren go- mendioa da ogi ez oso txigortuaren gainean mikuit zatitxo lodia jarri eta begiak itxita hozka egitea.

XUBERO ARTISAU JAKIAK

Helbidea.

Larrunbe, 33 (Ikaztegieta)

Webgunea.

xubero.net

Telefono zenbakia.

669 826 023



ERREGE OPIIL EKOLOGIKOA

Tolosako Garia okindegi artisauak 10 urte betetzen ditu aurten, eta bere le- loari eutsiz jarraitzen dute, ama erez eta ha- rri errotan birrindutako irin ekologikoekin egindako ogi eta gozoak eskaintzea, herri- tarren gozamerako.

Eguberrietan gainera produktuen auke- ra zabaltzen dute eta besteak beste, Errege Opila eta *Panetonea* prestatzen dituzte. Errege Opil artisaua hiru modutan presta- tzen dute; etxeko kremarekin, Iztuetako esne-gainarekin eta lehorra.

Panetonea txokolatetzkoa izan daiteke, edo tradizionala, mahaspasa eta etxeko fru- ta konfitatuarekin.

Garia okindegian erabiltzen dituzten osagai guztiak gertukoak eta ekologikoak direla nabarmendu dute, «dudarik gabe, gure jakiak gozoak izateaz gain osasunga- rriak dira!».

GARIA OKINDEGI ARTISAU

Helbidea.

Soldadu kalea, 1 (Tolosa)

Telefono zenbakia.

943 67 13 63.

Instagram.

@gariaokindegia



HUTSIK EGITEN EZ DUENA

Otorduetarako bertako sagarrarekin eginiko euskal sagardo jatorri deiturako sagardoa eta Premium sagardoa eskaintzen dituzte Isastegi sagardotegikoek; jakiei zapore pizgarria gehitzeko, berriz, Sagarko sagardo ozpina ere badute; sagardotegian bertan, 'online' nahiz ohiko komertzioetan eta ostalaritzan eskuratu ahal dira produktu guztiak



ISASTEGI SAGARDOTEGIA

Helbidea.

Aldabatxiki auzoa, 15 (Tolosa)

Telefono zenbakia.

943 65 29 64

Webgunea.

isastegi.com

Helbide elektronikoa.

isastegi@isastegi.com

Facebook.

@isastegisagardotegia

Instagram.

@isastegi

Ederki laguntzen ditu jakiak, eta horregatik ohiko osagaietako bat da gure mahaietan. Eta zer esanik ez, lagunartean eta familia giroan egiten ditugun otordu berezietan. Horietan, ezinbestekoa eta hutsik egiten ez duena da euskal sagardoa. Tolosaldeko urrundu gabe, eskualdean ekoizle ugari ditugu, eta Tolosako Isastegi sagardotegia da horietako bat, gure nahi eta beharretarako eskaintza oparoarekin.

Bi sagardo erreferentzia dituzte. Txapelgorri euskal sagardo jatorri deiturako sagardoa da, eta Isastegiko Joseba Lasak azaldu moduan, bertako sagarra %100 erabilita egina da: «Bertako sagarraren aldeko konpromiso irmoa dugu, eta horregatik, Tolosaldeko sagar ekoizleekin egiten dugu lan».

Sagardo berezia nahi duenarentzat, berriz, txapel doratuduna ere badute aukerarik. Edizio mugatuko Premium sagardoa da, DO Kalitate ziguiluak bermatutako sagardo naturala, eta urtean bi edo hiru sorta egiten dituzte. Sagarrak kontu handiz au-

keratzen dituztela kontatu du Lasak: «Mikel anaia eta bioi gehien gustatzen zaigun kupela edo nahasketa aukeratzen dugu, eta hori botilaratzen dugu. Emaitza fruta-gustuko sagardo loretsua da, ahoan orekatua, tanino sotilen arteko harmonia perfektuarekin eta azidotasan atseginarekin».

Berezia eta kalitatezkoa denaren seinale, aurten hainbat sariketa irabazi dituzte Isastegikoek sagardo honekin. Apirilean Cider World nazioarteko sagardo txapelketa garrantzitsuenetakoa ospatu zen Frankfurtan (Alemania), eta urrezko domina eskuratu zuten. Ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen Sagardo Lehiaketan ere urrezkoa irabazi zuten, eta irailean Rigan (Estonia) egin zen Nordic International Cider Awardsen ere urrezko domina eskuratu zuten.

Botilan edo latan

Sagardoa botilan merkaturatzen dute, ohiko neurrian nahiz txikiagoan. Azken urteetan latan ere eskuragarri da Isastegiko sa-

gardoa. «Esportazioaren ideiarekin Estatu Batuetara sagardoa latan hasi ginen esportatzen, eta duela urte pare bat bertan aukera hori ere eskaintzen ari gara». Eguneroko kontsumo horretan, bazkaltzeko edo afaltzeko, botila bat gehiegitxo egiten zaionarentzat oso egokia dela dio Lasak. «Ondo kontserbatzen da, txinpartak ondo mantentzen ditu, eta hozkailuan ere erosoagoa da, leku gutxiago behar baitu; egunpasa gozazenerako ere latak oso aproposak dira eramateko». Hasieran formatu horrek sagardozalea harritu egin zuela azaldu du, «baina, denboraren poderioz jendea ohitzen ari da, eta sagardogile gehiago ere ari da latan sagardoa saltzen».

Bestalde, Sagarko izenarekin sagardo ozpina ere egiten dute. Isastegi sagardo naturaletik lortutako sagar ozpina da, metodo tradizionalak erabiliz egina eta ontasun natural ugari dituena. «Entsaladei, barazkiei eta elikagai gehienei zapore pizgarria gehitzeko modu osagarria da. Urte dezente daramagu gure

sagardoarekin ozpina egiten, eta jendeak dagoeneko ezagutzen du», adierazi du Joseba Lasak.

Isastegi sagardotegikoek ekoizten dituzten produktuak sagardotegian bertan eskuratu daitezke, eta *online* ere saltzen dute, *isastegi.com* webgunean. Gainerakoan, ohiko komertzioetan ere topatu ahalko dira, eta baita inguruko ostalaritzan ere.

Uzta berria, oparoa

Urte osoan dastatu dezakegu sagardoa botilan edo latan. Sagardo berria kupeletik sagardotegian bertan probatzea da beste aukera, eta horretarako ez da gehiegi itxaron beharrik izango, urtarilaren 13an zabalduko baititu atek Isastegik.

Aurtengo uztari dagokionez, oso emankorra izan dela aipatu du Lasak. «Sagar asko izan da aurten, eta horrelakoetan sagardoa pittin bat arinagoa izan ohi da, alcohol gradu erdi inguru gutxiagorekin». Hori bai, aldi berean, lurrintxuagoa dela nabarmendu du. «Usaian freskototasun handiagoa nabari da».

Egokiena norberak probatzea eta alderatzea dela diote Isastegikoek, eta Tolosaldeko herritar guztiak gonbidatu dituzte bertaratzera, euskal sagardoaz gozatzera.

Erabili meloia

Gorde erosketa-tiketa


Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana, bien común



f t i www.kontsumobide.eus



**BISITATU
EUSKALTEL DENDA
TOLOSAN**

**Zure oraingo
eskaintza hobetzeko
itxarongo zaitugu.**

Gainera...

**Opari segurua
kontratatzegatik**



euskaltel

SAN FRANTZISKO PASALEKUA, 19


943 57 24 57



BASERRIKOA,
DENDATIK,
EROSLEARENTZAT,
HERRIAREKIN,

ZU

baserritikzuretzat.com

 [@baserritikzuretzat](https://www.instagram.com/baserritikzuretzat)

- Iturralde harategia (Tolosa)
Basque Label harategia
- Gurdi kooperatiba (Anoeta)

Nafarroa hiribidea, 16
Tel.: 943 65 56 85


TOLOSA


MUGAR

MODA INTIMA

Pablo Gorosabel, 28
Tel.: 943 65 40 37

TOLOSA





kax, kax, kax

Eguberrietan ere, opariak komertzio txikitik zure etxera!

oparien zerrenda prest daukazu?



Bidali iezaguzu whatsapppez (688 750 783).



Eskaera konfirmatuko dizugu.



Jaso zure etxean, edo bidali nahi duzunari.



* Tolosaldean entregak egun berean. Penintsula osora, 24 ordutan.

Tolosa & Co

TOLOSA



eskaneatu!

